

DEBABARRENA ESKUALDEKO MANKOMUNITATEKO I.EUSKARA PLANA

Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatean euskararen ezagutza eta erabilera ezagutzeko plan bat egingo da, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 DEKRETUAN ezarritakoarekin bat etorritz.

Debarrena Eskualdeko Mankomunitatea sektore publikoko erakundea den aldetik 19/2024 dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa, betetzea dagokio.

Aipatutako plana aurrera eramateko, lehenik eta behin egoeraren diagnostikoa egingo da, Arrasateko Emun aholkularitzaren laguntzaz.

Diagnostiko fase honetan egingo diren lanak hauek izango dira:

1. Langile guztiek bete beharreko galdetegia. (Arduradunaren bidez emango da).
2. Erakundearen galdetegia beteko da.
3. Hainbat langileri elkarriketak egingo zaizkie euskararen egoeraren berri jasotzeko.

Oso garrantzitsua da urtarrilean abian jarriko den prozesuan langile guztiek parte hartzea..

Aldez aurretik eskerrik asko zuen laguntza eta parte hartzeagatik,

2025eko abenduaren 15a

